


Itzulpenak eta Lankidetzak



*Irratiko albisteak ahozko ulermena lantzeko bide**

Gail Leisching

Klasean irratiko albisteez baliatzeko zenbait teknika deskribatuko da artikulu honetan. Teknika hauek ez daude ohizko ulermen-tekniken antzera eratuak (testua eta galderak) eta, ahal den neurrian, entzumena eta beste hizkuntz trebetasunak elkarrekin integratzea dute helburu.

Teknika hauek zehatz-mehatz deskribatu aurretik, irakaskuntzako alderdi bati ondo begiratzea komeni da. Ikasleek bigarren hizkuntzan irakurri edo entzuten dutenean, beren amankomuneko ezagupideez eta aurreikusmenaz gutxiago baliatzeko joera dute antzeko testua ama-hizkuntzakoa denean baino. Amankomuneko ezagupide hauetaz baliatzeko eta aurreikusmen-estrategiak lantzeko, merezi du albisteak (edo beste edozein testu) entzun aurretik, preskakuntza bezala, zenbait ariketa egitea. Ekintza hauen bidez ama-hizkuntzako abildadeak bigarren hizkuntzan erabiltzera ohituko da ikaslea, eta entzungo duena ulertzeko gauza dela eta ia dena ulertuko duela pentsaraztera helduko da. Ikasleak ez du uste izan behar, bestalde, hitz guztiak eta bakoitza ulertzen ez badu ezer ulertuko ez duenik. Ikasleak, beraz, testu osoa geldialdirik gabe eta zintari behin eta berriz atzera eragiten aritzeke entzutera hezi behar lirate-

ke. Irratiari gagozkiolarik, berri batzu entzungo dituela adierazi behar dio irakasleak ikasleari. Ondoren irratia seguraski zein berri emango dituen eta zergatik asma dezala taldeak. Jenderik gehiena unean uneko gertaerez arretatua egoten denez, erraza izaten da normalean nolabaiteko predikzioak lortzen, ahozko ulermen handi-handirik ez dutenekin ere.

Informazio nagusiari jarri arreta

Ikasleek beren ustez emango diren berriak elkarrekin eztabaidatu ondoren, emanaldia entzun eta berri bakoitza jaso dezatela eskatzen zaie. Gero taldeak emanaldia entzuten du eta zenbat berri eman diren, horietako bakoitzaren mui-na eta berriak aurrez asmatu dituzten ala ez galdetzen zaie. Ikasle batzuk, bidezkoa denez, beste batzuk baino gehiago ulertuko dute agian eta, hori dela medio, irakasleak izango du aukera ulertu dutenek ez dutenei azalpenak egin diezazkieten eskatzeko. Talde osoak puntu nagusiak ulertu edo dituenean, berriz jar daiteke zinta; eta berri bakoitza entzun ondoren, gelditu egingo da, oro har ondo ulertu ez dena argitzeko. Taldea maila apal samarrekoa denean, pentsa dezake irakasleak berriez baliatzeko era-

* Ingelesez «Radio news as Listening Comprehension» izenez, «*Modern Language Teacher*» aldizkarian argitaratua. Beraien baimenez itzulua eta berrargitaratua. Beste honako liburu honetan ere argitarata da: Helen Moorwood, 1978, «*Selections From MET-Modern English Teacher*», Essex, Longman.

rik egokiena izenburuak bakarrik erabiltzea dela.

Hobe da, era berean (taldearen maila dena delarik), hasieran esatari bakarreko emanaldiez baliatzea. BBC World Service-k baditu alde horretatik bere abantailak; nazio barruko albisteetan baino polikiago hitzegiten dute esatariek, berrien arteko pausaldiak luzeagoak dira eta berriak berak ere ez hain lokalistik. Taldea World Service-ra jarri denean, jo daiteke ahots askotako emanaldietara eta esatarienaz beste ahotsak bereiztea izan daiteke entzun eta eztabaida ariketaren atal bat.

Titularrak idazten

Puntu nagusiei adi egoteak ekar dezake berez titularren idazketa ariketatzea ere. Titularrak zer diren jakin beharko lukete ikasleek eta irratiko titular gehienak ez direla izaten egunkarietakoak bezain laburtuak. Ikasleak lehen bezala arituko dira berriak aurrez asmatzen eta entzuten, baina titularrak entzuteke. Gero banaka edo binaka erabaki dezatela zein diren, uste dutenez, titularretan sartu beharreko berriak; erabaki hori hartu ondoren, nork bere titularrak idatziko ditu, gero taldearen aurrean azaltzeko. Azkenik, ikasleek idatzitakoa irratia benetan esan duenarekin parekatzen da. Ariketa hau normalean oso deigarria izaten da, askotan berriak emateko ordena ez baita izaten titularren ordenaren isladak; maiz aski ez dira bat etortzen ikasleen bertsioak, eta berrez sortzen da eztabaida.

Informazio bereziari arreta jarri

Ariketa-modu honetan irakasleak ikaslearen arreta informazio jakin bat entzutera zuzentzen du, aurrez pentsatutako galdera batzuri erantzuna eman diezaieten gero.

Hiru eratan egin daiteke lan hori:

a) Irakasleak albiste bakar batean edo emanaldi osoan oinarri duten galderaz-zerrenda motz bat prestatzen du. Galderak hitz bakar batez erantzuteko mo-

dukoak izan daitezke. Adibidez: «non izan zuen hegazkinak istripua?»; «zenbat lagun hil ziren?»; etab. Galderak albistearen edo emanaldia entzun aurretik egin beharko lirakeke. Ikasleei aztertze-ko eskatzen zaie; gero behin edo bitan entzun irratia dioena, eta ahalik eta erantzun gehien idatziko dituzte.

b) Irakasleak galdera gehiago, zerrenda luzeagoa, presta dezake, ikasleek binaka edo taldeka banatu eta bikote bakoitzari bi edo hiru galdera eman.

c) Ikasleek, aurrez eztabaidan eta albisteak asmatzen aritu direnez gero, bade, gutxi edo gehiago, entzungo dutenaren berri. Eska dakieke, beraz, gero talde osoari edo talde txikiei banatuko zaizkien galderak presta ditzatela.

Edozein metodo aukeratzeko delarik ere, ikasleek ondoren berrien emanaldia entzun eta galderak erantzuteari ekingo diote. Ezinbestean izango dira erantzunei buruz iritzi desberdinak. Iritzi bakoitzari banaka zintaren bidez erantzuna ematen aritzea baino hobe da galderantzun guztiak egin eta gero zinta entzutea, erantzunen bat emango duten zatia entzutean geldituz.

Albisteak berriro moldatzen

Lan honek prestakuntza handiagoa eskatzen dio irakasleari. Izan ere, emanaldiko albiste bakoitza aurrez grabatu behar da laborategiko hainbat kabinatan; adibidez, lehenengoa lehen, bigarren eta hirugarren kabinetan; bigarrena, laugarrenean, bostgarrenean eta seigarrenean. Zenbait berri motz banaka edo multzoka graba daiteke, ikastaldearen eta hizkuntz laborategiaren zenbatekoaren arabera. Irakasleak ondo jaso beharko du zein berri zein kabinatan dagoen. Emanaldiko titularrak talde osoari azalduko dizkio arbelean idatzirik. Gero ikasleei galdetuko zaie emanaldian beste berririk egongo dela uste ote duten. Predikzio zehatzak bakarrik idatziko dira arbelean lehengo titularrekin batera. Ikasleek bururatu zaizkien albisteak adierazitakoan irakasleak osa dezake zerrenda eta berri ba-

koitza edo berri multzo bakoitza zein kabinatan entzun daitekeen azaldu ar-belean zenbakien bitartez. Ikasleei konbite egiten zaie nahi dutena aukera dezaten, eta doazela kabinetara entzun eta oharrak hartzera. Berri bera aukeratu duten ikasleek beretako bakoitzak jasotako oharrak denen artean parekatuko dituzte eta berria berriz osatuko dute. Gero taldetxo horretako batek beste berriak entzun dituztenei aurkeztuko die berregindako albistea. Komeni da aurkezpen honetan etenei leku ematea, berria lehenengo aldiz entzungo dutenik izan dezaten argibideak eskatzeko, eta komentarioren bat egiteko aukerarik. Emanaldian ahots asko baldin badira, albiste berregina ordezkari bakar batek oso-osorik eman beharrean, entzun duten ikasleek, nork bere rola aukeratuz (elkarriketatzaila/bozeramailea edo esataria/kazetaria), denen aurrean aurkezte dezakete.

Badu bere garrantzia esateak ikasleek ekintza hau ez dutela diktatu gisa egin behar; arreta handiz entzun behar dute eta *garrantzia* duen informazioa bakarrik entzutera bultzatu beharko lituzke irakasleak, bizitzan ez bait da zinta gelditu eta atzera eta aurrera ibiltzeko aukera handirik izaten.

Esan gabe doa guzti hori askoz hobeto egin daitekeela hizkuntz laborategian. Alabaina, emanaldiaren kopiak magnetofonoz ere entzun daitezke, eta ikasleek berriak zintan aurkitu, eztabaidatu eta oharrak jaso ditzakete elkarrekin taldeka.

Entzunaldi paraleloa

Maila guztietako ikasleek egin dezakete ariketa hau, honelaxe egin ere: hiruzpalau estraktu desberdin prestatzen dira aurrez laborategian (lehen albistee-

kin egin den bezala) edo magnetofonoren bidez grabaturik. Estraktuok honako hauek izan daitezke:

a) Goizean eman diren albisteen bertsioak: BBC World Service, Capital Radio eta Radio 4-enak, adibidez.

b) Albiste baten bertsio desberdinak.

c) Gaurkotasun handiko albisteren bati egunez egun eman zaion tratamendua.

d) Albiste luzeren bat hiru zatitan banatuta; adibidez, aurkezpena, elkarriketa eta komentario/laburpena.

Ikasleak talde txikitik banatzen dira eta talde bakoitzari estraktu bat ematen zaio. Adibidez, talde batek World Service-ren titularrak entzungo ditu, besteak Capital Radio-renak eta hirugarrenak Radio 4-enak. Taldekide bakoitzak berriak bere kabuz entzuten ditu eta gero talde denen artean parekatu eta eztabaidatu dira. Estraktua aurrez magnetofonoan hartua baldin bada, berezkoa denez, taldekideek entzun, oharrak jaso eta eztabaidatu egiten dute. Ekintza hau burutu ondoren, beste talde batzuek entzun dira ikasleekin, talde bakoitzean guxtien lehengo talde guztietako kideren bat egongo delarik; hau da, talde berri bakoitzak World Service, Capital Radio eta Radio-4 taldeetako kideren bat izango du. Taldekide guztiek, nork bere estraktua entzun duenez gero, izango dute orain entzundakoa eztabaidatu, parekatu, kontrastatu eta koordinatzeko aukerarik.

Beste bide bat guzti hau multimediazko ekintza bihurtzea litzateke. Adibidez, talde batek berri bat iratiak nola eman duen entzuten du, besteak «kategoriazko» egunkari batek nola azaltzen duen eta hirugarrenak egunkari «herrikoiak» nola dakarren.

LAS NOTICIAS DE LA RADIO COMO EJERCICIO DE COMPRENSION ORAL

El autor describe algunas técnicas que pueden utilizarse para explotar las noticias de la radio en clase y trata de establecer lazos entre las actividades de audición y otras destrezas lingüísticas.

El autor insiste en la necesidad de realizar actividades preparatorias, a fin de hacer uso óptimo de los conocimientos y de las estrategias de predicción que los alumnos utilizan en L1 cuando nos enfrentamos a un programa de audición en L2.

Estas son las técnicas descritas:

- Ejercicios destinados a la extracción de la información principal.
- Escritura de titulares.
- Ejercicio destinado a la extracción de información específica.
- Reconstrucción de noticias.
- Audición paralela.

RADIO NEWS AS LISTENING COMPREHENSION

The article describes some techniques that can be used to exploit the radio news in the classroom and attempts to integrate listening with other skills.

In order to exploit students' shared knowledge and predicting skills used in their L1 when dealing with an L2 listening text, the author insists that it is well worth

leading into the news with certain preparatory activities.

These are the techniques described:

- Listening for the main information.
- Headline writing.
- Listening for specific information.
- Reconstituting notes.
- Parallel listening.

LES INFORMATIONS A LA RADIO EN TANT QU'EXERCISE DE COMPREHENSION DE LA LANGUE PARLÉE

L'auteur décrit quelques techniques qui peuvent être utilisées pour exploiter les informations radiophoniques en classe, et cherche à établir des liens entre l'audition et les autres compétences linguistiques.

Afin de profiter au maximum des connaissances déjà acquises et des stratégies de prédiction dont se servent les élèves dans leur langue maternelle alors qu'ils se trouvent devant un exercice d'audition de la langue

étrangère, l'auteur insiste sur le besoin de réaliser des activités préparatoires.

Les techniques décrites sont les exercices suivants:

- *L'extraction de l'information principale.*
- *Les gros titres.*
- *L'extraction d'information spécifique.*
- *La reconstruction de notes.*
- *L'audition parallèle.*